

Zirrara



KARMELE GISASOLA
ZENIKAZELAIA
HERRI KIROLARIA

Iraila, errutinara buelta, askorentzat ikasturte berria eta horri dagozkion zirrarak: ikasturtea norekin konpartitu, nor izan alboan, zer ikasi, nola eta nora joan... Batzuentzat, esperientzia berriak bizitzeko lehen aldia.

Aldiz, beste batzuentzat esperientzia berririk ez, lehengo berdinerara buelta. Inguruko berdinak, toki berdina, ezer berririk ez. Gauza asko lehen aldiz bizitzean, zirrarez hartzen dira, aldiz, egoera behin eta berriz errepikatzen hasten denean ez du sentazio berririk sortzen.

Aurten, bigarren aldiz, Boise-n ospatzen den jaialdira joateko aukera izan dut. Aurrekoan bezala, herri kirolean, baina aurrekoan ez bezala, beste modalitate batean, aizkoran. Banekien non egingo genuen lo, hiria nolakoa zen, non egingo genituen herri kirolak... Hortaz, zirrara handirik ez dut sentitu momentu askotan. Baina bai, ordea, beste egoera batzuetan.

Munduaren beste puntan egon arren, Euskal Herrian nekez lortzen diren gauza batzuk lortu ziren. 4.000 pertsona baino gehiagoren aurrean ordu eta erdiko herri kirol saioa eskaini genuen; beste horrenbeste jenderentzat bi ordu baino gehiago irauten duen euskal dantzen emankizuna eskaini ziguten; euskal kontzertuetan jendeak dena eman zuen, eta horiek guz-

tiak ikusteko, jendeak sarrerak ordaindu zituen. Ez ziren dohainik izan.

Boiseko kaleetan ezin da alkoholik edan, hortaz, euskal etxearen inguruko kaleak itxi zituzten eta bertan sartzen zen pertsona orori (berdin zioen 25 urte edo 70 urte izan) NANA eskatzen ziguten. Arratsalde batean, euskal etxearen inguruan nengoela, gizon batek kasu egin zidan eta berarekin zegoen emakumea aurkeztu zidan, hau esanez: "Gu ere Gisasola gara". Gizonak aipatu zidan bera Ibarrangelukoa zela, baina emakumea amerikarra zela. Segituan, emakumea euskaraz hasi zitzaidan hitz egiten. Momentu batez, pentsatu nuen Euskal Herrian bizi zela eta gerora Ameriketara joana izango zela, baina ez. Bere birramama joan zen Euskal Herritik Ameriketara, artzain batekin ezkondu zelako. Eta hiru belau-naldi geroago, beraien familian euskarak jarraitzen zuela ikusi nuen. Eta noski, ez zen familia bakarra. Horrelako beste batzuekin egoteko ohorea izan nuen. Ezagutzen nuen familia oro zirrarez entzuten nuen. Eta bai, ohorea diot, zeren Euskal Herrian bizi den askok ez baitio baliorik ematen dugunari.

Eskerrak baden euskaldunik, Euskal Herrian bizi ez denik, dugunari balio ematen dionik. ●

Palestinarrainoko olatua



ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Ikasturte berriarekin batera, EHU Palestina plataformako kideok berriro batzen hasi gara, ikasgela, ikerketa eta gainerako unibertsitate-jardueretan Palestinan Israel egiten ari den genozidioa eta horren konplizeak salatu eta baztertzeko. Abiatu ginenean oso bakarti sentitu arren, elefantea mugiarazi ahalko genuen konbikzioa genuen, eta, epela bazen ere, lehenengo adierazpen bat lortu genuen. Aldi berean, Espainiako Estatuko zein nazioarteko beste unibertsitateekin sareak josten hasi ginen, salaketa eta elkartasun ahotsa campusetan anplifikatzeko.

Orain, Errektoretzak beste urrats bat egin du, eta hainbat ikerketa atze-

ra bota ditu hartutako konpromisoari eutsita. Ez dagokit niri horren balorazioa egiterik, baina gogoeta hona ekarri nahi dut, EHUn ez ezik iritzi publikoan ere nabaritzen baitut aldaketa. Batzuei gero eta zailagoa egiten zaie beren txepelkeria –isiltasun konplizea ez bada– justifikatzea, nazka adierazten duen herriaren elkartasun oihua kriminalizatzea, edo enpresa batzuen jarduna defendatzea.

Hau idazten ari naizela, Gazarako ontzidian dut bihotza, mundu osoan milaka pertsonak bezala, eta badakit, erasotzen badute, kaleak beteko ditugula, Palestinarekiko elkartasun olatua tsunami geldiezina baita. ●